

EAJk eta UDCk Europako Parlamenturako hauteskunde legea aldatu nahi dute

Ekimen legegile bat proposatuko dute autonomiei hautes-barrutia aitor diezaieten

Xabier Arzalluzek eta Josep Maria Duran i Lleidak azaldu zutenenez, EAJk eta Kataluniako UDCk ekimen adostu bat bilatuko dute Europako Parlamenturako hauteskunde legea aldatzeko. Egun Espainia osoa hautes-barruti bakarra da, eta eurodiputatuak lortzeko asmoz jeltzaleek koalizioak egin izan dituzte beste alderdi autonomiko batzuekin.

Iñaki Uriarte / Bilbo

EGUN bi iraun du EAJ eta UDCko buruek izandako eztabaidaguneak. Atzokoan Josep Antoni Duran i Lleidak eta Xabier Arzalluzek azaldu zutenaren arabera, egoera politikoa ezezik Madril eta Europako Parlamentuari begirako politika aztertu zuten.

«Elkarrekin jardungo dugu ahalik eta adostasunik zabalena lortuko duen ekimen legegile bat egiteko Kataluña, Euskadi eta Estatua osatzen duten beste nazioei hauteskunde barrutia aitor diezaieten Europako Parlamenturako hauteskundeetan». Burukide politiko biek ekimen horretan bat datozela aitortu arren ez zuten zehaztasunik eman epe edo edukiez ere. «Ahalik eta kontsentsu zabalena lortu nahi dugu eta horrek gainerako guztia baldintzatzen du», nabarmendu zuen Duran i Lleidak.

Laguntza PPri transferentzien truke • Xabier Arzalluz hurrengo egunetan Jose Maria Aznarrekin bilduko da. Burukide jeltzaleak esan zuen EAJ eta PPren arteko hitzarmena ez dagoela arrakalduta, ez dagoelako itunik orain. «Une honetan EAJ ez dago itune-



Duran Lleida eta Arzalluz atzo elkarrekin eman zuten prentsaurrekoan.

XOUSE SIMAL

tan PPko Gobernuarekin», Aznar gobernuburu izendatzeko orduko ituna amaitu zen. Legegintzaldirako borondate adierazpena besterik ez zutela egin, ohartarazi zuen. Arzalluzek zalantzan jarri zuen PPK borondatea duenik egun Gizarte Segurantzaren bezalako gaiak garatzeko. «Ez gaude konprometuz batean, betetzen doan moduaren arabera jardungo dugu, ez da ezer apurtu».

Bestalde, Xabier Arzalluzek gezurtatu egin zuen nazionalistak Espainia erosten ari direnik Aznarren gobernuaren babestearen truke. «Eraso masibo bat jasaten dugu kataluniarrek zein geuk esanez Espainia erosten ari garela, hondakinak eramaten ditugula, laguntzak behar dituen gobernu bat dagoela profitatuz. Ematen du Espainia desegiten ari

garen politikako lortzaile antzeko zerbait garela». Arzalluzek iraingarri iritzi zion jarrera horri.

Burukide jeltzaleak oroitarazi zuen EAJ zein CiU egitarau politiko batekin aurkeztzen dutela hauteskundeetara eta xede horiek lortzen ahalegindu behar direla. «Bide politikotik eta ez indarrez egitarauko atalak lortzen saiatzeak ez dauka zerikusirik kentzerarekin edo amarruekin», nabarmendu zuen Arzalluzek. Burukide jeltzaleak gogorazi zuen Gonzalezen gobernuaren aztertu zuela hauteskunde legea aldatzeko aukera nazionalisten eragina murrizteko. «Ematen du baztertze ildo batera eraman nahi gaituztela jakin badakitela ez dugula pistoletara joko, ez beraiek (UDC) ez guk, orduan zer bilatzen dute?»

Ertzaintzari esparrua murrizteko saialdia • Estatuko Segurtasun Indarren partehartzea, PPko kideak babesteko, ontzat eman zuen Jaurlaritzak hala eskatuz gero. Eztabaida «histeriatik» irten dela eta Ertzaintzari esparrua kendu nahi izana salatu zuen.

Euskal Herrian 5.000 guardia zibil eta 2.000 polizia espainiar daudela oroitarazi ostean, «ez dakit legearen arabera dagokien arma eta leherkarien kontrola edo beste gauzaren batera dedikatzen diren, beste gauza batera dedikatzen badira argi dago hemen zertan dabilzan». Arzalluzen arabera, «Akatsen bat dagoenean Ertzaintzarentzat dira irainak, eta nik galdetzen dut ea hemen dauden beste 7.000 poliziek ez duten inolako erantzunik», adierazi zuen. X

laburrean

■ Torturatzeaz akusaturiko 6 poliziaren epaiketa

JULIO HIERRO, Poliziaren Bilboko Informazio Brigada Probintzialeko arduraduna da, eta beste bost polizia epaituko dituzte gaurtik 1984an bi atxilotu torturatu izanaz akusatuta. Fiskalaren arabera Iraultza taldeko bi kide atxilotu zituzten banku batean lehergailu bat jarri ostean. Akusazioaren arabera, poliziek galderak, jipolak, mehatxuak eta elektrodoak jasanarazi zizkieten atxilotuei. Indautxuko komisarian (Bilbo). Jasandako tratatu txar baten ondorioz, atxilotuek zenbait lesio izan zituzten. Fiskalaren arabera, 16 hileko presoaldi nagusia, 12 urteko inhabilitazioa eta hilabeteko presoaldi txiki bat eskatu du Hierrorentzat. Atxilotuak ordezkatzen dituzten akusazioak 18 eta sei hilabeteko presoaldi nagusia, 10 eta 20 urte bitarteko inhabilitazioa eta 13 milioi pezetako kalteordaina eskatu du. X

■ 6 urteko eskaria Barakaldoko gazte batentzat

BARAKALDOKO lehenengo Zigor Epaitegiak lau urteko espetxe zigorra eskatu zuen atzo izandako epaiketan. Roberto M.C. gaztearentzat Zakarrontziez eginiko suketan barrikada bat jartzen atxilotu zutenean ertzain bati eraso egin eta beste baten aurka saiaturik izana egotzi zion fiskalak. Akusazio horrek 18 hileko bi zigor eskatu zituen agenten kontrako atentatuagatik, eta urtebeteko espetxealdia trafikoko segurtasunaren aurkako delitaren batentzat. Defentsak, erantzunen lekukotasuna kolokatu jarri ostean, akusatua eraso absolutzioa eskatu zuen. Beste talde, gazteak atxiloturik egotzi zituzten bitartean pairatutako lesioak salatu zituen. X

Joxe Azurmendik dionez «ETA herri honek bizi duen tragediaren produktua da»

■ *Elkarriren aldizkariak elkarrizketa luze bat argitaratu du berarekin*

Erredakzioa / Donostia

ELKARRI gizarte mugimenduak argitaratzen duen aldizkariak Joxe Azurmendi filosofoaren elkarrizketa bat argitaratu berri du bere azken zenbakian. Elkarrizketa horretan Azurmendik luze eta zabal jorratzen du euskal gatazkaren egungo egoera, polarizazioa, azken gertaeren ondorena, ETaren izatearen funtsa eta abar.

Elkarrizketaren lehen zatian Jose Luis Casoren hilketak LAB, ELA, EHNE eta Elkarriren ekimen bateratu hura bertan behera utzi zuela gogoratuz, Azurmendik dio ez zuela ulertu hilketak hura. (Iruretagoienaren hilketaren aurretik egin da elkarrizketa). Bizi


dugun «egoera txikituan» itxaropen izpi bat sortu zuen ekimena izan zela dio, eta bai ETArri eta bai Madril polarizazioa baino ez zaitela interesatzen. Azurmendiren iritziz, «ez dut hitz egingo» esaten duenak (PPren Gobernuak alegia) *de facto* biolentzia nahi du.

Ekimen hark sortu zuen itxaropenari eustekotan elkarrizketak bideak hartu behar direla ere azpimarratu du filosofo zegamarrak elkarrizketa horretan, eta polarizazio hori gainditzeko. Automatismoak gainditu, bakoitzak «bere kaiolatik atera», besteen errealtateak kontutan hartu eta jarrerak hurbiltzen hasteko garaia dela ere nabarmendu du Azurmendik. Ildo horretan, hiru-

garren esparruari buruz ere mintzatzen da. Bere iritziz, Madril ahalegin handiak egin dira esparru hori gauza ez dadin.

Halaber, ELAren diskurtsoak ere zenbaitetan zentzu gehiegirik ez duela dio: «Negoziatu egin behar dela esan, eta, era berean ETA soberan dagoela esaten ari zitezkeen agian ez du zentzu gehiegirik». Beraz, Azurmendik garbi ikusten du balizko negoziatzeko Madrilgo Gobernuaren eta ETaren arteko beharko lukeela izan. Horren inguruan luze hitz egiten du elkarrizketan barrena.

ETaren aukera politikoki ez duela inoiz eztabaidatu ere azaltzen du Azurmendik. Bere ustez herri honetan euria dagoen beza-



Joxe Azurmendi filosofo zegamarra.

ANDER GILLENEA

la dago ETA. Era berean, «bizitza sakratua da» edota «biolentzia oro salagarria da» esanez ezin dela borroka armatua eztabaidatu dio, hori tranpa dela. Erakunde armatuari buruzko ikuspegia emanez erantzun asko eman ditu

Azurmendik, eta horietako batean dio ETA herri honen tragediaren produktua dela. Halaber, ETArri gabe herri honen etorkizunaren defentsak ez duela oso erraza ematen dio elkarrizketa horretan. X